

# HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.18890

Hamar urte igaro dira emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koan, aprobatu zenetik. Arau horren urteurrena ospatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten jarraitzeko dagoen beharra agirian uzteko, 2017ko irailaren 21ean eta 22an, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren babespean, *Nuevos retos en materia de igualdad laboral tras diez años de aprobación de la LOI* izenburua zeraman Udal Ikastaroa ospatu zen. Antolatzalea Zuzenbide Pribatua Saila izan zen eta ikastaroaren zuzendaria Elisa Sierra Hernáiz, sail horretako Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbide irakaslea. Udal Ikastaro horren antolaketaren eta bertan parte hartzeko gonbidapenaren ondorioz, *Lan Harremanak* aldizkariaren hurrengo zenbakiak berdintasuna ardatz giza izan zezala erabaki genuen. Hori dela eta, aldizkariaren 38. zenbakiak Udal Ikastaro horretan aurkeztutako zenbait hitzaldi abiapuntutzat harturik idatzitako artikuluak jasotzen ditu, besteak beste.

Atal irekiari dagokionez, bi artikulu topatuko dituzue: lehenengoak, gizarte eta lan arloko auditoria giza baliabideen eta lan harremanen kudeaketa tresna gisa aplikatzeko zaitasunei buruzko ikuspuntu desberdinak aurkezten ditu; bigarrena, ordea, Administrazio Publikoko zenbait lanetan «bigarren jarduera administrativoa» izateko aukerari buruz aritzen da eta homogeneotasun eta uniformetasun gabezia duen araudiaren aplikazioak sortzen dituen zaitasunak aztertzen ditu.

Hitzaurrea baliatuz, *Lan Harremanak* aldizkariaren zuzendaria izateari uzten diodala esaten dizuet. Zuzendari gisa aritu naizen bi urte eta erdi hauetan, lana gogorra izan da, baina gogobetegarria eta pozgarria, modu honetako aldizkarien funtzionamendua ezagutzeko aukera izan dudalako eta, batez ere, aldizkariak pertsona ugari ezagutzeko aukera eman didalako. Horrek guztiak lan harremane-kiko nire ikuspuntua zabaldu eta aberastu du eta, baita ere, giza harremane-kiko nuen ikuspuntua eta eremua.

Aldizkaria aurrera ateratzeko lanean aritzen den pertsona taldeari eskerrak ematen dizkiot eta, nola ez, zuen lanekin edo artikuluekin parte hartu duzuenei eskerrak ematen dizkizuet, ere bai

Beste behin, zenbaki honetako edukia interesgarria izango delakoaren itxaropenarekin agurtzen zaituztet. Eta aldizkariaren zuzendari berriari opa diot nik lan honekin disfrutatu dudan haina, edo gehiago, disfrutatu dezala.

Laster arte.

Miren Edurne López Rubia